

ETA-REN AURKAKO MANIFESTAZIOA. Ibarretxeren ekimenak «adostasun faltsu bat» lortu nahi zuela esan du Piquek

Igandean gizarteak elkarrizketaren aldeko mezua eman zuela dio Imazek

Ideologia askotako jendeak ETArri «ñabardurarik gabeko arbuioa» eman ziola esan du



ALFREDO ALDAI / EFE

Manifestazioaren lehenengo ilaran Eusko Jaurlaritzako kideak egon ziren, tartean Juan Jose Ibarretxe lehendakaria.

Erredakzioa | **GASTEIZ**

Josu Jon Imaz Eusko Jaurlaritzako bozeramaileak «bihotzez» eskertu zuen atzo joan zen igandean Juan Jose Ibarretxe EAeko lehendakariak deituriko manifestaziora joan zen «jende oldea». ETA ez leloarekin, mila-kapertsona bildu ziren Bilboko kaleetan. Euskal gizarteak «kalera» irten zela eta «pentsatzen duena» esan zuela nabarmendu zuen Imazek. Horregatik, bere aburuz, «etorkizunari begiratzeko eta gizarteak eman dizkigun mezuak jasotzeko» unea da. «Elkar ulertzeko esparruak sustatu behar ditugu, alderdi politikoen arteko aurkaritza bidea alde batera utzi eta, akordio politikoetan aurrera egin ahal izateko, elkarrizketa sustatu behar dugu taldeen artean», iritzi zion.

Imazek gaineratu zuenez, «indarkeriaren kontra elkarrekin joan behar dugu, bakea erakitzeke proiektu guztiak errespetatuz eta askotarikoa den gizarte honetan batzuek zein besteek ditugun pentsamoldeak errespetatuz».

Eusko Jaurlaritzako bozeramaileak adierazi zuenez, manifestazioan parte hartu zutenek «banatzen gaituen guztia alde

batera utzi eta batzen gaituena bultzatu zuten, ETArri eta bere indarkeriari ñabardurarik gabeko arbuioa alegia». Imazen ustez, «batasun horrek guztioi baliotza izan behar digu gogoeta egiteko gure herriaren alde denok batera lan egin dezagun».

PPk «ETArri ezetz esateko interes partekatuen aurretik alderdiaren interesa» jarri izana deitoratu zuen. Aski Da! taldeko kideekin izandako liskarrak «bigarren mailakoak» izan zirela esan zuen.

Maixabel Lasa Indarkeriaren Biktimen Laguntzarako zuzendariak ere parte-hartzaileak eskertu zituen: «Aspaldian ez ginen bildu manifestazio batean ideologia askotako herritarrak, batzen gaituena bultzatzeko: ETArri kontrako erabateko arbuioa».

Lopezek dio PSE Jaurlaritzatik «oso bereizita» joan zela

Patxi Lopez PSE-EEko idazkari nagusiak azpimarratu zuenez, sozialistak Eusko Jaurlaritzatik «ondo bereizita» joan ziren manifestazioan, alegia «euskal gizartearekin» egon zirela eta «ez Eusko Jaurlaritzarekin». Sozialistek Eusko Jaurlaritzara aldarazi nahi dutela adierazi zuen Lopezek, «ez diolako Euskadik duen

DATUA

25.000 eta 120.000 artean

Josu Jon Imaz Eusko Jaurlaritzako bozeramaileak «120.000 lagun» aipatu zituen atzo, manifestazioko jende kopurua gogoan zuela. Bilboko Udaltzaingok igandean emandako datua ontzat eman zuen horrela. Gara egunkariak egindako kontaketa araberak, 25.000 lagun bildu ziren.

lehentasunari erantzuten, hau da, ETArri kontrako borrokari». Lopezek ustez, «kritika politikoaren gainetik eta nork deitu zuen alde batera utzita» erabaki zuen PSOEk martxara joatea. «Izan ere, horren gainetik uste genuen beharrezkoa zela terrorismoaren aurkako arbuioa adieraztea euskal gizartearekin bat eginez».

Pasqual Maragall PSCko presidentea baikor azaldu zen manifestazioarekin. Bertan «ETArri kontrako batasun politiko handia» zegoela esan zuen. Haren aburuz, euskal gatazkaren «irtentze politikoa inoiz baino hurbilago dago».

Bestalde, ERCko idazkari nagusi Josep Lluís Carod-Rovira- ren iritziak, PPren barruan «pisu handiagoga du [EAeko] gobernu hirukoitzari amaiera emateak, [ETArri] indarkeriaren amaierak baino».

Bere alderdiak ez duela «konplexurik» dio Piquek

Josep Pique Espainiako Zientzia eta Teknologia ministroak adierazi zuenez, bere alderdiak ez du «konplexurik» izan manifestazioan egon ez zelako. Ibarretxeren ekimenari «sinesgarritasuna» kendu zion, indar politikoen arteko «adostasun faltsu bat bilatzen duelako, ETArri ingurunearen kontrako borrokari uko eginez». Javier Arenas PPko idazkari nagusiaren ustez, PP ez da izango Ibarretxeren «independentziaren aldeko planen koartada».

Ildo beretik, Miguel Sanz Nafarroako Gobernuako presidentea uste du deitzaileen aldetik nahikoa zatekeela «keinu» bat PP bertan izateko. Haren ustez, PP ez egoteak erakusten du «sentsibilitate guztiak batzeko interes falta» dagoela. «Helburu alderdikoiak» alde batera utzeko eskatu zuen Sanzek, «indarkeriaren aurkako borrokan lortutakoa ez galtzeko».

ESANAK

JOSU JON IMAZ

(Eusko Jaurlaritzako bozeramailea)

«Elkar ulertzeko esparruak sustatu behar ditugu, alderdien arteko aurkaritza alde batera utziz»

PATXI LOPEZ

(PSE-EEko idazkari nagusia)

«Jaurlaritzak ez dio ematen lehentasuna ETArri kontrako borrokari»

PASQUAL MARAGALL

(PSCko presidentea)

«ETArri kontrako batasun politiko handia izan zen»

JOSEP LLUIS CAROD-ROVIRA

(ERCko idazkari nagusia)

«PPn pisu handiagoga du hirukoari amaiera emateak, indarkeria amaitzeak baino»

MIGUEL SANZ

(Nafarroako Gobernuako presidentea)

«Sentsibilitate guztiak batzeko interes falta dagoela erakusten du PP egon ez izanak»

PATXI ZABALETA

(Aralarko koordinatzailea)

«PPren haitzuloetako jokabideak irudia eman zion manifestaziorari»

Espainiako Gobernuak EAEko ordezkari Enrique Villarren irudiko, martxan parte hartu ez zutenek «ez dira lehendakariaren aldekoak ez kontrakoak, eta joan zirenak ere ez dira estatutu partekatuen lelokeria horren aldekoak».

Patxi Zabaleta Aralarko koordinatzailearen ustez, «politikoki pixka bat gordina» eta «haitzuloetako den» PPren jokabideak «irudia» eman zion Ibarretxeren martxari. Bere ustez, Ibarretxe berak aldarrikatutako printzipioekin kontraesan erori da, manifestazioaren leloak «ez duelako deitzen elkarrizketa, aniztasunera eta irtentze politikora».